

FUNTSEZKO ELKARTEAK

Gure produktua merkatura eramateko eta behar ditugun baiabideak lortzeko, hainbat enprekin aliantzak sortuko ditugu. Gainera makinak kalera eramateko eta hauen funtzionamendua egokia izateko ere hainbat elkarteen laguntza beharko dugu.

Ezer baino lehen, makinak funtzionatzen jartzeko, hauek musukoz betetzeko eta aberiaren bat baldin badago hauek konpontzeko lokal bat beharko dugu. Hau lortzeko, UGGASA-rekin kontaktuan jarriko gara. Enpresa honen laguntzaz, lokal bat Urretxun irekitzea lortuko genuke, hilabetero 30€ ordainduta beharrezkoak diren gastuak ordainduko ditugu, hau da, ura, gasa, argindarra, interneta eta elktrizitatea. Horrez gain, udaletxera joan beharko dugu lokala irekitzeko baimena eskatzera.



Alde batetik, guk jarriko dugu dirua hasiera batean, baina beste alde batetik bankuari ere diru laguntza bat eskatuko diogu. Hau lortzeko, banku desberdinak begiratuko ditugu, eta hauek eskaintzen dizkiguten interesak begiratu ondoren, egokiena iruditzen zaiguna aukeratuko dugu.

Bestalde, musukoak edukiko dituen makinak lortzeko Irunesa enpresarekin aliantza bat sortuko dugu. Hau, Euskal Herriko enpresa bat da Irunen kokatuta dago eta makinak sortu eta erreparatu egiten dituzte. Gure ustez, laguntza ona ahalko digute eskaini. Makinak egiteaz eta gaizki daudenaz konpontzeaz arduratuko dira. Baita makinak dagokion lekuetan jartzeaz arduratuko dira.



Gure produktua Goierri aldean ahalik eta gehien zabaltzeko eta jendea honengana erakartzeko, beharrezkoa izango da publizitatea egitea, beraz, Euskal Herriko komunikabide batzuekin harremanetan jarriko gara. Eitb eta Gaztea irratiarekin hasiera batean, bertan gure produktuaren iragarkiak jarriko ditugu.



Oso garrantzitsua izango da gure produktua patentatuta egotea, horrela gobernuarekin eta beste enprekin arazoak sahiestuko ditugu eta gure enpresa behar bezala babestuta egongo da. Horretarako OEPM-ra joan beharko gara eta bertan egingo dugu.